

Onartzen diren ibilgailuak



Baimenduta dago ibilgailu azkarrak, autobusak, autokarrak eta 7,5 t arteko merkatugaien garraiorako ibilgailu astunak pasatzea.



Ez dago baimenduta oinezkoak, bizikletak eta animalien trakzioko ibilgailuak pasatzea; halaber, ezin dira pasatu 50 cc-tik beherako zilindro-bolumeneko ibilgailuak, zirkulatzeko gehieneko abiaduratzat 60 km/o-tik beherakoa dutenak eta 7,5 t-tik gorako arteko garraiorako ibilgailu astunak.



Debekatuta dago merkatugai arriskutsuak pasatzea.

Tuneletan zehar zirkulatzean



Piztu argi laburrak. Kendu eguzkitako betaurrekoak ikuspenik ez gaitzeko



Piztu irratia eta egon adi tunelen zaintza zerbitzuak eskaintzen dituen mezuei.



Gorde segurtasun distantzia aurreko ibilgailuarekin.



Errespetatu gehieneko abiadura mugak eta arreta eskaini seinaleztapenari



Ez aldatu noranzkoa eta hartu atzerako martxa.



Ez gelditu, larrialdiaren edo zirkulazio geldialdien kasuan izan ezik.



Ez erabili klaxona, egoera arriskutsuak saihesteko izan ezik.

Zirkulazio geldialdiaren kasuan



Piztu larrialdiko keinukariak.



Mantendu segurtasun distantzia nahikoa, gutxienez 5 metrokoa, aurreko ibilgailuarekin.



Geldialdia luzea bada (2 minututik gora), itzali motorra.



Egon adi tunelen zaintza zerbitzuak ematen dituen mezuei.



Eskaini arreta berezia seinale aldakorren bitartez emandako adierazpenei.

Sutearen kasuan



Zure ibilgailuan sua ikusten baduzu, ahal izanez gero, atera tuneletik.



Ezinezkoa bazaizu, baztertu ibilgailua tunelaren alborra eta itzali motorra. 25 metroko distantzian ur mahukak eta su itzalgailuak daude eta sua itzaltzen saia zaitezke.



Beste ibilgailu batek sua duelako ezin baduzu abiada jarraitu, itzali motorra eta atera ibilgailutik, baina utzi jarrita pizteko giltza.



Jarri txaleko islatzailea eta eskatu laguntza tuneleko SOS zurtainak erabiliz edo telefono mugikorraz baliatuz (112).



(112). Zure posizioaren berri emateko, tuneleko hormatan kokapen kode errotulatuak aurkituko dituzu.



Jarraitu beti tuneleko langileen azalpenak edo, horiek izan ezean, seinaleen bitartez jasotakoak.



Zugandik 100 metrora baino gutxiagora beti irteera atea aurkituko duzu. Tuneletik ateratzeko erreparatu ebakuazio seinaleen adierazpenei.

Matxura edo istripuaren kasuan



Piztu larrialdiko keinukariak.



Ahal denean, jarraitu abiada tuneletik irten arte.



Tuneletik ateratzea ezinezkoa suertatuz gero, saiatu ibilgailua galtzadaren eskuinaldeko ertzean gelditua uzten eta itzali motorra, baina mantendu posizio argiak



Jarri txaleko islatzailea eta eskatu laguntza tuneleko SOS zurtainak erabiliz edo telefono mugikorraz baliatuz (112).



Zure posizioaren berri emateko, tuneleko hormatan kokapen kode errotulatuak aurkituko dituzu.



Jarraitu tuneleko langileek megafoniaren edo seinaleztapenaren bitartez emandako argibideak eta ahal baduzu, larrialdiko zerbitzuak iritsi arte, eskaini lehen sorospenak zaurituei, egongo balira.

BIZKAIKO TUNELAK URDINBIDE



DATUAK

Errepidea:	Variante BI-635
Luzera:	670 m.
Hodien kopurua:	2
Mota:	I
Urtea:	2018
EBBI:	
% bilgailu astunak:	



ARGAZKIAK



ESKEMA

